2003
Trailak
Egia
13
18
19
20
21
PORTONTXO
JAIAK

Egunkaria berritu egin zaigu, berria da
Berria besapean, goazen festara!

Hemen ditugu Porrontxo jaiak! Hamaika koloretako blusak, dantzak, bertsoak, jokoak... eta gau eta egun bukaezinak. Eta bai ederra, parranda ondoren, egunkaria eskuartean hartzea eta munduan gertatutakoaren berri izatea! Are plazer handiagoa, informazio hori euskaraz jasotzea.

Gure zorionerako, eta batzuen zoritxarrerako, aurtengo Porrontxotan eguneroko albisteak euskaraz irakurri ahal izango ditugu. Berria-k eskainiko digu gozamen hori, Euskaldunon Egunkariaren lekukoa hartu duen kazetak. Egiako euskaldunoi, euskaldun guztioi, eguneroko informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea kendu nahi izan digute, baina ahalegina alferrikakoa izan da. Ez dezagun ahaztu, ordea, duela urte erdi pasatxo euskarazko egunkari nazional bakarra indarrez itxi zutela eta oraindik ere etengabea dela gure hizkuntzaren eta Euskal Herriaren kontrako erasoa.

Baina, esan bezala, katea ez da eten. Ez da eten, milaka herritarren laguntzari esker, tartean egiatar askorena. Izan ere, egiatarrok badugu harro egoteko arrazoia: Berria-ren aldeko kanpainan Egian hasieran ezarritako helburua aise gainditu eta, guztira, ia 45.000 euro bildu ditugu orain arte. Zorionak denoi! Dena dela, bada oraindik zereginik: Berria indartu egin behar da, diru gehiago bildu beharra dago, harpidetzak zabaldu behar dira... Finean, euskarazko egunkaria babestu behar dugu. Beraz, badakizue; harpidedunak ez bazarete, Porrontxotan ere euskarazko egunkaria lagun dezakezue, parrandatik bueltan etxeratu baino lehen edo, bestela, esnatu eta berehala, Berria erosita. Gora Egunkaria! Gora Berria! Gora Porrontxoak!

Egiako Egunkariaren Aldeko Batzordea

Azken oharra: antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

Nota: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

Festa Batzordeak eskerrak ematen dizkie Porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei

La Comisión de Fiestas agradece a los vecinos y comerciantes del barrio que con su ayuda han colaborado en la realización de este programa de fiestas

OHARRA: Jaietan auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurrina, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

NOTA: Animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas ADORNANDO las terrazas con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.

IGANDEA, 7

10:30 Porrontxo VI. kross txapelketa

LARUNBATA 13

10:30 Eskuz eta palako semifinalak frontoian.

11:00 Egiatik Kantari malabar,hankapalo kale animazioa eta Amaia, Hodei eta Haizea trikitixaz alaituta

14:00 Kuadrilentzako Bazkaria P. Haundin*

Bazkarian bi pertsonentzako asteburu bat landetxe batean zozketatuko da.

17:00 Mus semifinalak, brile, twister, futbolin, e.a jokoak Amaia, Hodei eta Haikzea trikitixaz eta Iñaki eta Xabier txalaparatariez alaituta P. Haundin*

OSTEGUNA, 18

17:00 Buruhaundi eta erraldoiak INCANSABLES txarangarekin.

17:30 Haur jeitsiera Karmengo Ama kalean zehar.

18:00 Haurren Pilota finalak frontoian.

18:30 TAKOLO, PIRRITX eta PORROTX P. Haundin*.

20:00 Suziri eta Porrontxoen jeitsierarekin, **jaien hasiera.**

20:01 Kuadrilen jeitsiera KANTAURI eta LAGUNAK txarangekin, **Karmengo Ama kalean zehar.**

22:00 Dantzaldia TRAKETS taldearen eskutik P. Haundin.

22:30 Karaokea Txosnen gunean

23:00 INCANSABLES txaranga.

23:30 Rock & Roll Festa: Barleyjuice taldearekin eta Musi kots Dj-ak Txosnetan

01:00 Banana Dantza eta Puzgarrien jokoa P. Haundin.

01:01 JATORRENAK txaranga.

OSTIRALA 19

10:00 Diana Albokariekin: Amaia eta Ainhoa

12:00 Alkorta anai-arreben trikitixa eta Haizea, Hodei eta Amaiaren trikitixa auzoa alaituko dute.

12:00 Haur jokoak ANTXETAren eskutik P. Haundin*
17:00 Aldakonea egoitzan Haizea, Hodei eta Amaiaren Trikitixa.
18:00 Buruhaundi eta erraldoiak INCANSABLES txarangarekin.
18:30 Plaza Haundi Haurrentzako Antzerkia GORRINGO Taldearen eskutik Donostia kulturak ekarrita.*
19:00 Bertso Poteoa Nerea ELUSTONDO eta Xabier SILBEIRA Bertsolariekin eta Haizea, Hodei eta Amaiaren **trikitixarekin.**
19:30 Kronoeskalada Karmengo Ama kalean zehar.
20:00 KANTAURI txaranga.
20:32 Kuadrilentzako **OLINPIADAK jokoa** P. Haundin.
21:30 Haurrentzako Zenzensuzkoa Tejeria kalean.
21:33 Kontzertua METRAILA, KALEKUMEAK, ADIKUNE ETA BANDA MUNIZIPALA taldeen eskutik **P. Haundin.**
23:00 BERBENA **trikitixarekin txosnen gunean**
23:31 INCANSABLES txaranga.
00:00 Hernaniko Akelarrea P. Haundin
01:01 Kontzertua PIN PAN PUN BAND eta talde sorpresa **P. Haundin.**
02:00 LAGUNAK txaranga.
02:30 Dj-ak Fernan Plaza Haundian.
03:03 Aulkien jokoa eta soka-tira P haundin.
05:00 Baratxuri zopa.

LARUNBATA, 20

ELKARTASUN EGUNA

08:01 JATORRENAK txaranga.
08:30 Batelak Urumea Ibaian JATORRENAK txarangarekin.
09:00 Diana albokariekin. **Amaia eta Ainhoa**

10:00 Gladys Enea parkean haurrentzako txokolatada eta haur jokoak.AMALUR TALDEAREN eskutik.
(Donostia kultura babestutako ekitaldia)

12:00 EGIA BIZIRIK AUZO ELKARTEA**ren eskutik Parodia,trikitixa eta amaiketakoa P. Haundin**.

17:00 Mus finalak P. Haundin.

17:00 Haurrentzako Tailerrak tatuaiak paperezko loreekin,.... P. Haundin*.

17:30 JATORRENAK txaranga.

18:00 Dantza erakustaldia ANAIAK Dantza Eskolaren eskutik P. Haundin.

18:30 Plaza Berrin* DETRAKA taldearen eskutik **haurrentzako berbena** Donostia Kulturak ekarrita.

19:00 Jazz emanaldia P. Haundin.

20:30 Haurrentzako Zenzensuzkoa Plaza Haunditik, Karmengo Ama eta Plaza Berri.

21:00 Kuadrilen afaria Tejeria Kalean.

22:30 KANTAURI txaranga.

23:00 Dantzaldia LAIOTZ taldearen eskutik Pl. Haundin.

00:00 BATUKADA BRASILEINA Plaza Berrin.

00:30 KALEJIRA Porrontxoekin txaranga eta auzoko zanpar-zaharrekin.
Ondoren Aurresku herrikoia.

01:00 BALDARRAK Txaranga.

01:30 BATUKADA BRASILEINA Auzoan zehar.

01:30 Txoznen gunean berbena TRIKIZIO taldearekin.

02:00 LAGUNAK txaranga.

IGANDEA, 21

07:00 Kuadrilentzako oilasko gosaria Plaza Haundin.

07:33 Futbola erratzekin koadrilentzako jokoa.

08:30 INCANSABLES txaranga.

09:00 Diana albokariekin. **Amaia eta Ainhoa**

10:30 Esku-pilota eta pala txapelketen finalak frontoian. Haizea, Hodei eta Amaia trikitilariekin alaituta.

12:00 NAVARRERIASen eskutik **jotak P.Haundin.**

13:00 Sagardo dastaketa Haizea, Hodei eta Amaiaren Trikitixarekin.

14:30 Bazkari herrikoia P. Haundin auzoko elkarte diren Donosti-Gain, Ur zaleak eta Arrano ren laguntzarekin.*

17:00 Herri kirolak Igeldoko Herriaren Laguntzarekin P.Haundin*.

19:00 Sardinada Haizea, Hodei eta Amaiaren Trikitixaz alaituta

20:00 Dantzaldia TRIKIZIO taldearen eskutik P. Haundin.

21:00 INCANSABLES txaranga.

22:00 Kuadrilen kalejira Porrontxa eta Porrontxoarekin auzoan zehar.

23:00 Azken traka eta Porrontxinoaren erreketarekin jaien amaiera.

(*)Eguraldiak behartuko balu pilotalekuan ospatuko lirateke.

EZ APARKATU **NO APARCAR**

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos/as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

TEJERIAN: Kale honetako goiko aldea ostirala arratsaldetik larunbata gaua arte (koadrilen afaria, dela eta).

En la parte alta de la calle a partir del viernes a la tarde hasta el sábado a la noche (por la cena de cuadrillas).

TEJERIA ETA KARMENGO AMAN: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan kronoeskaladagatik.

Viernes a la tarde en doble fila por la cronoescalada.


egia
Porrontxo
jaiak!
2003
irailak
13, 18, 19, 20, 21

PORRONTXO
JAIAK 2003
IRAILAK 13, 18, 19, 20, 21
egia